

# Udal kirol eskolak: jolastu eta alaitu

(Municipal sports schools: come play and cheer)

Mujika Usobiaga, Iñaki

Bizkaiko Foru Aldundia. Kultura Saila. Rekalde zumarkalea, 30 - 1.  
48009 Bilbo

inaki.mugica@bizkaia.net

BIBLID [1137-4447 (2006), 15; 21-28]

Jaso: 06.10.23

Onartu: 06.11.24

---

*Jolastu eta Alaitu proiektua Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimena da eta bere helburua Bizkaian udal eskolak sortzea da, ume guztiei, elkarlehiarik gabe, kirol zehatz bat egiten irakasteko. Horrela, umeek kirolaren bitartez jolasten gozatzten dute. Horretaz gain, kirol estrategikoak sustatzeko programa zehatz bi garatzen dira: herri kirolak eta pilota.*

*Giltza-Hitzak: Kirol eskolak. Herri kirolak. Kirol ohiturak. Eskola-adinean. Kirol koordinatzaileak. Kirol estrategikoak. Euskal Pilota. Kirolaren Euskal Plana. Eskolaumeak.*

*El proyecto Jolastu eta Alaitu es una iniciativa de la Diputación Foral de Bizkaia y su objetivo es crear escuelas municipales para la enseñanza de la práctica de un deporte concreto a todos los niños, sin competición entre ellos. De esta manera, los niños disfrutan con el deporte. Además, se desarrollan dos programas concretos para promocionar deportes estratégicos: deportes rurales y pelota.*

*Palabras Clave: Escuelas de deporte. Deportes rurales. Costumbres deportivas. En edad escolar. Coordinadores deportivos. Estrategias deportivas. Pelota Vasca. Plan Vasco del Deporte. Escolares.*

*Le projet Jolastu eta Alaitu est une initiative de la Députation Forale de Bizkaia et son objectif est de créer des écoles municipales pour l'enseignement de la pratique d'un sport concret à tous les enfants, sans compétition entre eux. De cette façon, les enfants ont du plaisir à faire du sport. De plus, deux programmes concrets sont développés pour promouvoir des sports stratégiques : sports ruraux et pelote.*

*Mots Clés: Ecoles de sport. Sports ruraux. Coutumes sportives. En âge scolaire. Coordinateurs sportifs. Stratégies sportives. Pelote Basque. Plan Basque du Sport. Scolaires.*

Gaur, egin nahi ditugun proiektu batzuen berri eman nahi dizuet, kirola sustatzeko eta eskolaume eta helduen parte-hartzea bultzatzeko. Proiektu horietako bi, pilota eta herri kirolak modalitateei dagozkienak, garatu eta ezartzeko fasean daude, eta Bizkaiko beren federazioekin egindako hitzarmenen bitartez 2005-2006 denboraldian hasiko dira. Aipatuko dudan lehenengo proiektua astiroago doa, baina besteak bezain garrantzitsua da; kontua da bertan inplikaturik dauden baliabide eta agenteek zailago egiten dutela hastea.

Ondoren, ondoko proiektuak martxan jartzeko metodologia eta helburuak adieraziko dizkizuet:

- 1. proiektua “JOLASTU ETA ALAITU”
- 2. proiektua “GURE PILOTA BULTZATZEN”
- 3. proiektua “HERRI KIROLAK BULTZATZEN”

## **1. PROIEKTUA: “JOLASTU ETA ALAITU”**

Proiektuaren helburu nagusia hau da: udaleko edo eskualdeko kirol eskolak sortzea hainbat modalitateetan. Oinarrizko printzipio batek gidatuko ditu eskola guztiak: neska-mutilek parte hartzea irakasten zaien kirol modalitate batean, baina, kirola praktikatzen ari diren bitartean, jolastu eta ondo pasatzeko.

Marian Izpizua “Bizkaiko biztanleen kirol ohiturak 2001” azterlana egin zuen Bizkaian; bertatik, datu batzuk atera daitezke. Esaten zuen 18 urterekin emakumeen %57k uzten ziotela kirola egiteari; gizonen kasuan, berriz, 23 urterekin gertatzen zen. Kopuru horiek, berez, kezkarriak dira; baina, are kezkarriagoak dira kontuan hartzen badugu emakumeen %34,5ek bakarrik egiten zutela kirola, eta gizonen kasuan, ordea, %51k.

Harrigarria bada ere, datu horiek ez datoz bat talde horren nahiekin; izan ere, 20 urtetik 29 urtera bitarteko pertsonen %87k praktikatu nahi dute kirola.

Lehen esandakoaren ondorioz argi esan daiteke biztanle gehienek ez dutela parte hartu erakundeek antolatutako lehiaketetan.

Gure asmoa da kirol eskolek hutsune bat betetzea, hain zuzen, partaidetza-kirolean eta eskola-kirolean ikusten dugun hutsune bat.

### **1.1. Helburuak**

1. Eusko Jaurlaritzak onartutako kirol modalitateak eskola-adinean sustatu eta bultzatzea. Modalitate horien oinarria irakaskuntzako egitura metodologiko bat izango da, baina irakaskuntzaren helburua ez da izango lehia-keta antolatuetan parte hartzea.
2. Eskola-adina duten eta kirolean jarraitu nahi duten kirolarien kopurua areagotzea.

3. Kirol-modalitateak praktikatzeko aukera adin guztietara zabaltzea, kirola jolastzat hartuta.
4. Kirol eskoletarako alderdi nagusiak definitzeko, faktoreak uztartzea, esaterako hauek: lortu nahi den trebetasun-maila, jolasa zutabe izanik modalitateaz gozatzea, ariketa fisikoa egitea, kirola egitearen atsegina, lehiaketak eta irabaz nahiak eragindako ondorioak eta estresa ez egotea.

### 1.2. Beste eskaintzekiko zeharkakotasuna

Ez da inola ere kirola praktikatzeko egun eskaintzen diren beste era batzuk, eskola-kirola, kirol federatua, eta abar, ezabatzea. Bakar-bakarrik da eskaintza zabaltzea, pertsonak kirol praktikan gehiago inplikatzeko.

Beti da posible kirolaren euskal planak markatutako beste kirol-ibilbide batzuetara jotzea; izan ere, udal kirol eskola batean parte hartzen duenean, kirolariak kirol praktikaren ezagutza hutsa eta lehiaketa uztartu ahal izango ditu, dela ikastetxe batean dela klub batean, eta eskolaren egitura bera mantentzeko daiteke bestela egin ezin den lekuetan.

Kirol eskolak bere garapen eta helburuak ditu, baina kirolariak, gehiago nahi duenean, proiektua utzi eta kirola praktikatzeko beste modu batzuetara jo dezake.

### 1.3. Inplikaturako agenteak

Eskoletan inplikaturako agenteak hiru dira:

AGENTEAK	FUNTZIOAK	BALIABIDEAK	HELBURUA
Bizkaiko Foru Aldundia	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Proiektuaren sustatzaile eta bultzatzailea.</li> <li>* Jarduera-esparrua egitea.</li> <li>* UKEak koordinatu, planifikatu eta ikuskatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Pertsonak: jarrera eta proiektuak adosteko.</li> <li>* Ekonomikoak → dekretu bidez jarduerari diru-laguntzak emateko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Eskatutako eskaintza bat betetzea</li> <li>1. Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanleentzako kirol eskaintza osatzea.</li> <li>2. Kirolaren Euskal Planaren (P2-02) jardueretako bat garatu eta ezartzea.</li> <li>3. Kirol munduko profesionalak kirolaren antolakuntzara sartzeko, eskola eta jolas kirol arloan.</li> </ul>
Federazioak	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Dagokion kirol modalitatean UKEen proiektua Portu eta burutzea.</li> <li>* Udalekin hitzarmenak egitea, UKEak ezartzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Pertsonak: UKEen proiektua egiteko eta gizarteratzeko.</li> <li>* Ekonomikoak: materiala uztea...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>4. Kirolaren Euskal Planaren (P2-02) jardueretako bat garatu eta ezartzea.</li> <li>5. Kirol munduko profesionalak kirolaren antolakuntzara sartzeko, eskola eta jolas kirol arloan.</li> </ul>

Udalak	* Federazioekin UKEei buruzko hitzarmenak egitea.	* Giza baliabideak: Federazioekin hitzartzeko UKEen sorrera eta jarraipena. * Ekonomikoak, materialak: instalazioak, espazioak, eta abar uztea.	6. Biztanleentzako kirol eskaintza areagotzea. 7. Honela, Kirolaren Euskal Planaren (P2-02) jardueretako bat ezartzea.
--------	---	--	---

#### 1.4. Titulazioa/gaitasuna

Udal Kirol Eskolen (UKE) kalitatearen puntu nagusi bat proiektuak gauzatu dituzten pertsonak dira; beraz, komeni da puntu hori arretaz aztertzea.

Oro har, hauek dira lehentasunak:

- Kirol ikasketak dituzten tituluak lanera sartzeko bultzatzea: Jarduera Fisiokoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatuak (SHEE-IVEF), Gorputz eta Kirol Jardueren Animazioko Goi Teknikariak (TAFAD), Inguru Naturaleko Gorputz eta Kirol Jardueretako Teknikari Ertainak.
- Kirol eta aisiarekin zerikusia duten ikasketak dituzten pertsonak lanera sartzeko bultzatzea (Irakaskuntzako diplomadunak, Gorputz Heziketa espezialitatearekin...), baita kirol modalitatean titulua<sup>1</sup> dutenak ere (kirol entrenatzaileak).

Orain azalduko dugu zeintzuk diren titulazio egokiak UKEen antolakuntzako egituretan egongo diren postuetarako:

- Eskola-zuzendariak: SHEE (IVEF)
- Koordinatzaileak: TAFAD
- Begiraleak: Kirol entrenatzaileak, TAFAD, Gorputz Heziketa espezialitateko irakasleak, inguru naturaleko gorputz eta kirol jardueretako teknikari ertaina.

Laneratzeko proiektu hau egiteko, BBKrekin eta “Gazte Lanbidean” bere Fundazioarekin batera egingo dugu lan. Fundazio horren helburu nagusia hau da: **profesionalak inoren kontura laneratzea** eta kultura ekintzailea sustatzea.

#### 1.5. Alderdi espezifikoak

##### 1.5.1. Eskolak kirol-sarean kokatzea

Lehen esan dugun bezala, UKEren garapena partaidetza ibilbidearen barruan kokatzen dugu. Hauek dira Kirolaren Euskal Planak Udal Kirol Eskolei markatzen dizkien helburu estrategikoak:

1. Federazioen kirol titulazioak, erregimen bereziko irakaskuntzan sartu aurretik. Horretarako, federazioaren kirol titulu teknikoaren egitura aurkeztu beharko da, ikasketa plana, edukiak eta ikasketak orduak, praktikoak zein teorikoak, barne.

- *Herritarren jarduera-tasak ahalik eta mailarik altuenera igo eta puntu horretan mantentzea, kirol praktika jarraitua, osasuntsua eta gure ingurumen eta kulturarekin errespetuzkoa sustatu eta erraztuz.*
- *Baldintzak eta guneak ziurtatzea, herritarrek oinarrizko kirol jarduerak praktikatu ahal izateko.*
  1. *Kanpo zabalean; ibili, korrika egin eta bizikletaz ibili ahal izateko.*
  2. *Instalazio estalietan; igeri egin eta beste kirol jarduera batzuk praktikatu ahal izateko.*

### 1.5.2. UKEen edukiak

Hurrengoak dira UKEetan landu beharreko edukiak:

EDUKIAK	JARDUERAK	NORENTZAT	EZAUGARRI NAGUSIAK
Ikasi eta irakastekoak	* Modalitatea irakasteko progresio metodologiko bat egongo da, irakaskuntzaren etapa batzuk sortuz (ez adinaren arabera); hala irakaskuntza ondo antolatuko da.	* Eskolaumeentzat * Helduentzat	* Lehiaketa baten konpromisorik gabe, kirol modalitate bat ikasi nahi duten pertsonak.
Jolastekoak	* Irakaskuntza-ikaskuntza * Jolas-jarduerak * Guneak eta materiala erabiltzea * Kirolarekin lotuta dauden jarduerak (kirol ekitaldietara, ikastaroetara ...joatea) * Nahi izanez gero, helduentzako lehiaketetan parte hartzea, nahi den neurri eta eran.	* Helduei zuzenduta, baina zenbait jardueretan eskolaumeak ahaztu gabe.	* Ordutegi malgua * Ez da konpromisorik eskatzen * Erraza da sartzea * Aukeratu ahal da * Abantailak bere atxikipenarengatik

### 1.6. UKE motak

#### KIROL MODALITATEAREN EZARPEN-MAILA. KIROL UDAL ESKOLAK

BULTZATU	OSATU	ZEHAZTU
Lehentasunezko kirol modalitatea izan edo gutxi ezarrita dagoen kirol modalitatea eskaintzen duten UKEak	UKEek, kirol modalitatea ezarrita dagoela, edukiren <b>bat antolatu, osatu edo sortu</b> nahi dutenean (ikaskuntza-irakaskuntza, guztiontzako jolas-edukiak)	UKEek, kirol modalitatea ezarrita dagoela, edukiren <b>bat zehaztu, egokitu, doitu</b> nahi dutenean (ikaskuntza-irakaskuntza, guztiontzako jolas-edukiak)

## **KIROL ESTRATEGIKOAK: SUSTATU ETA BULTZATZEA**

### **Helburu orokorra**

Euskal Autonomia Erkidegoaren kirol politika orokorrari jarraipena ematea gure lurralde historikoan, BERTOKO KIROLAK sustatu eta indartzeko jardueran planak hiru ikuspuntutatik —kirolaren, kulturaren eta hezkuntzaren ikuspuntuetatik— bultzatzeko. (Gogorazi behar dugu Euskal Autonomia Erkidego mailan lanean ari direla Arraunketaren, Euskal Pilotaren eta Herri Kirolen plan estrategikoak egin eta abian jartzeko).

### **Aurreko helburua lortzeko egingo diren jarduerak**

Jarduera-plan bi abian jartzea, bata, Euskal Pilota eta, bestea, Herri Kirolak bultzatzeko:

1. “Gure Pilota Bultzatzen” proiektua
2. “Herri Kirolak Bultzatzen” proiektua

## **2. PROIEKTUA: “GURE PILOTA BULTZATZEN”**

### **2.1. Helburuak**

1. Euskal Pilota kirola gizarteari era orokorrean hurbiltzea, kirol, historia, kultura eta hezkuntza alderdietan oinarrituta.
2. Neska-mutilekin eskolako eta eskolaz kanpoko orduetan erabiltzeko material didaktikoa egitea.
3. Irakasleen etengabeko prestakuntzan laguntzea, kirol hau eskolako orduetan eta beren kabuz landu ahal izateko.

### **2.2. Helburuak lortzeko jarduerak**

#### **1. helburua:**

- “Euskal Pilota Herriz Herri” programa abian jartzea; ondokoak sartzen dira programan:
  - Euskal Pilotari buruzko herriz herriko erakusketa, jende guztiarentzat: Historia, tresnak, pilotalekuak, materialak eta argitalpenak.
  - Euskal Pilotan hasteko tailerrak eta jarduerak eskolaumeentzat.
  - Ikus-entzunezkoak jende guztiarentzat.

#### **2. helburua:**

- Euskal Pilotako modalitateen historiari buruzko komikiak egitea, ikastetxetako haurrek eskola-orduetan erabiltzeko.
- Euskal pilota ikasi eta irakasteko entrenamendu-eskuliburu bat egitea.

- Euskal Pilotari buruzko unitate didaktiko bat egitea, Gorputz Hezkuntzako irakasleek eskola-orduetan erabiltzeko.

### **3. helburua:**

- Gorputz Hezkuntzako irakasleei, GARATU irakasleen etengabeko prestakuntza programaren bitartez, Euskal Pilotan prestatzeko ikastaro bat eskaintzea.

### **2.3. Metodologia**

“Gure Pilota Bultzatzen” proiektua Bizkaiko Foru Aldundiaren, Euskal Pilotaren Bizkaiko Federazioaren eta udalen lankidetzaren bidez egingo da. Erakunde bakoitzaren oinarritzko egitekoak hauek dira:

- Bizkaiko Foru Aldundia: Baliabide ekonomikoak jartzea.
- Udalak: Baliabide ekonomikoak jartzea.
- Euskal Pilotaren Bizkaiko Federazioa: Giza baliabideak eta baliabide materialak jartzea.

## **3. PROIEKTUA: “HERRI KIROLAK BULTZATZEN”**

### **3.1. Helburuak**

1. Eskolara egokitu ahal diren Herri Kirolen modalitateen lehiaketa-egutegi bat sartzea eskola-programaren barruan.
2. Materialak egokitzea (diseinu berriak), eskolan praktikatu ahal izateko.
3. Herri Kirolen bat praktikatzen duten klubei lotutako Herri Kiroletako kirol eskolak egituratzea.

### **3.2. Helburuak lortzeko egingo diren jarduerak**

#### **1. helburua:**

Herri Kirolen eskola-lehiaketa sortzea:

- Parte hartzeko baldintza orokorrak
- Ibilbideak
- Modalitateak
- Araudia
- Parte hartzeko araudia
- Kategoriak
- Materialak
- Egutegia

#### **2. helburua:**

Eskolako neska-mutilei egokitutako materialak sortu eta homologatzea.

### **3. helburua:**

Udalekin akordioak lortzea, egun dauden Herri Kiroletako klubei lotutako kirol eskolak finantzatzeko.

### **3.3. Metodologia**

“Herri Kirolak Bultzatzen” proiektua Bizkaiko Foru Aldundiaren, Euskal Joko eta Kirolen Bizkaiko Federazioaren, ASFEDEBIren eta udalen lankidetzaren bidez egingo da. Erakunde bakoitzaren oinarritzko egitekoak hauek dira:

- Bizkaiko Foru Aldundia: Baliabide ekonomikoak jartzea.
- Udalak: Baliabide ekonomikoak jartzea.
- Euskal Joko eta Kirolen Bizkaiko Federazioa eta ASFEDEBI: Giza baliabideak eta baliabide materialak jartzea.